

BIZKAIAN TRIBUTU ITUNDUAK DIRELA-ETA BILDUTAKOAK

2022KO UZTAILA

I. ZIFRA GLOBALAK

a) Bildutako zenbateko likido osoa

Aurtengo uztailean, tributu itunduak direla-eta bildutako zenbateko metatuak % 11,1ko gorakada izan du, iazko urtearekin alderatuta. Guztira, 5.496,4 milioi euro bildu dira; 2021. urtean, berriz, 4.947,6 milioi euro bildu ziren. Horrek diru-bilketa likidoan 548,7 milioiko alde positiboa dakar; gehikuntza hori ekitaldirako aurrekontuaren guztizko kopuruaren (8.386,9 milioi euro) % 65,5 da

Emaitzak aztertzean, kontuan hartu behar da bi ekitaldietako hileko bilketa-ziurtagirietan jasotako zifren homogeneotasunik eza, pandemia-egoerak irauten duelako hartzen diren neurrien ondorioz, nahiz eta uztailean metatutako emaitzan neutralizatuta egon. Bestalde, nabarmena da elektrizitatearen fiskalitatearekin lotutako neurrien inpaktua; neurriok eragina izan dute energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga dela-eta bildutako zenbatekoan, bai eta elektrizitatearen gaineko zergan bildutakoan ere.

Barne-doikuntzei dagokienez, Bizkaiak 153,3 milioi euro gehiago ordaindu dizkie beste bi lurraldeei, hau da, % 19,4 gehiago. Bestalde, Estatutik jasotako doikuntzak % 38,4 igo dira, 122,8 milioi gehiago.

UZTAILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa likidoa	5.996.847,5	5.417.655,3	579.192,2	10,7
FFAAen barneko doikuntza guztira	-943.522,8	-790.239,2	-153.283,5	19,4
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	5.053.324,7	4.627.416,0	425.908,7	9,2
Guztizko doikuntza Estatuarekin	443.054,2	320.217,5	122.836,8	38,4
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	5.496.379,0	4.947.633,5	548.745,5	11,1
Gauzatze-ehunekoak	%65,5	%67,4		



b) Gestio propioaren ondorioz bildutako zenbateko gordina eta itzulitako kopuruak

Gestio propioko zerga itunduen bidez bildutako kopuru gordina 7.181,2 milioi euro izan da, urtebete lehenago lortutakoa baino % 12,3 gehiago; izan ere, orduan 6.395,3 milioi bildu ziren. Bestalde, itzulitako kopuruei dagokienez, % 20,4 gehiago itzuli da, iaz 1.767,9 milioi euro bildu baitziren eta aurten, berriz, 2.127,9 milioi. Inguruabar bi horien ondorioz, diru-bilketa likidoak % 9,2ko gehikuntza izan du.

UZTAILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa gordina	7.181.202,7	6.395.309,5	785.893,2	12,3
Itzulitakoak	-2.127.878,0	-1.767.893,5	-359.984,5	20,4
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	5.053.324,7	4.627.416,0	425.908,7	9,2

II. KONTZEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Zuzeneko tributuen ondoriozko diru-bilketa likidoa % 10,4 handiagoa izan da aurreko ekitaldian lortutakoa baino: aurten 2.821,7 milioi euro bildu dira, eta gorakada izan dute bai diru-bilketa gordinak (% 9,5), bai itzulitako kopuruek (% 4,2). Zeharkako tributuetan, berriz, diru-bilketa likidoa 2.194,4 milioi euro izan da, hau da, % 7,8 gehiago. Igoera bildutako zenbateko gordinen (% 14,9) zein itzulitako kopuruetan (% 25,8) jazo da. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk % 4,8 handiagoak izan dira; zehazki, 37,1 milioi euro bildu dira aurten, eta aurreko ekitaldian, berriz, 35,4 milioi.

UZTAILAREN TRIBUTU ITUNDUEN DIRU-BILKETA									
mila eurotan	Diru-bilketa gordina			Itzulitakoak			Diru-bilketa likidoa		
	2022	2021	diferen.	2022	2021	%	2022	2021	%
Zuzeneko zergak	3.282.817,7	2.998.748,5	9,5	461.068,2	442.546,9	4,2	2.821.749,5	2.556.201,6	10,4
PFEZa	2.532.777,1	2.350.237,3	7,8	439.381,8	423.366,1	3,8	2.093.395,4	1.926.871,2	8,6
Sozietateen gaineko zerga	563.184,2	466.629,7	20,7	7.244,3	10.312,6	-29,8	555.939,9	456.317,1	21,8
Gainerako zuzeneko zergak	186.856,4	181.881,5	2,7	14.442,2	8.868,2	62,9	172.414,2	173.013,3	-0,3
Zeharkako zergak	3.859.241,0	3.359.396,9	14,9	1.664.808,8	1.323.609,1	25,8	2.194.432,2	2.035.787,7	7,8
BEZa	2.851.812,8	2.408.919,1	18,4	709.679,2	530.289,4	33,8	2.142.133,5	1.878.629,7	14,0
BEZa barneko doikuntza				643.532,0	490.351,4	31,2	-643.532,0	-490.351,4	-31,2
Zerga bereziak	889.920,5	842.810,9	5,6	310.258,3	302.233,4	2,7	579.662,2	540.577,5	7,2
Gainerako zeharkako zergak	117.507,8	107.666,8	9,1	1.339,3	734,9	82,2	116.168,5	106.931,9	8,6
Tasak eta Bestelako Sarrerak	39.144,0	37.164,1	5,3	2.001,0	1.737,4	15,2	37.143,0	35.426,7	4,8
BEREZKO KUDEAKETA GUZTIRA	7.181.202,7	6.395.309,5	12,3	2.127.878,0	1.767.893,5	20,4	5.053.324,7	4.627.416,0	9,2
Doikuntzak Estatuarekin	700.112,0	517.661,9	35,2	257.057,7	197.444,5	30,2	443.054,2	320.217,5	38,4
Doikuntzak BEZa	657.026,2	472.967,5	38,9	10.731,4	11.109,6	-3,4	646.294,8	461.857,9	39,9
Doikuntzak Zerga bereziak	43.085,8	44.694,5	-3,6	246.326,3	186.334,9	32,2	-203.240,5	-141.640,4	-43,5
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	7.881.314,7	6.912.971,4	14,0	2.384.935,7	1.965.337,9	21,3	5.496.379,0	4.947.633,5	11,1



a) PFEZa

lazko uztailarekin konparatuta, PFEZaren diru-bilketa likidoak % 8,6 egin du gora, bai bildutako kopuru gordinak % 7,8ko gorakada izan duelako, bai itzultako kopuruak 423,4 milioitik 439,4 milioira gehitu direlako (% 3,8).

Zergaren osagaiak bilakaera ezberdina izan dute. Gora egin dute lanbide-, enpresa- edo arte-jardueren ordainketa zatikatuak (% 16,1), lan-etekinen gaineko atxikpenak (% 6,0), ondare-irabazien gaineko atxikpenak (% 3,4), higiezinaren kapitalaren etekinen gaineko atxikpenak (% 0,9) eta, batez ere, sarien gaineko zerga bereziek; azken horien bilketa 23,0 milioira igo da aurreko ekitaldiko 6,8 milioietatik, eta kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikpenak, aldiz, % 3,1 jaitsi dira. Beste alde batetik, kuota diferentzialaren emaitza negatiboa txikiagoa da (-113,4 milioi euro, aurreko urteko -143,3 milioien aldean), diru-bilketa gordinaren hazkunde handia dela eta (% 13,0); itzulketetan hazkundera ez da hain handia izan (% 1,4).

b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen gaineko zergaren kuota diferentziala % 29,3 hazi da (haren bilketa gordina % 27,6 igo da, 450,6 milioi bildu dira aurreko urteko 353,3 milioien aldean; itzulketen bolumena, berriz, 6,3 milioi izan da, eta % 34,2 jaitsi da). Aurreko epigrafean aipatu diren gainerako zergak kontuan hartuta, zergaren zioz bildutakoa % 21,8 gehitu da; izan ere, 2021eko uztailera arte lortutakoa 456,3 milioi izan zen, eta ekitaldi honetan bildutakoa, berriz, 555,9 milioi izan da.

c) Gainerako zuzeneko zergak

Gainerako zuzeneko zergetan bildu den kopuru likidoa % 0,3 gutxitu da; joan den urteko uztailera 173,0 milioi bildu ziren, eta aurten, berriz, 172,4 milioi. Honako hauek jaitsiera izan dute: oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak (-% 20,1), ondarearen gaineko zergak (-% 2,1) eta, batez ere, energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zergak (-% 99,9); azken kasuan, zerga eteteak (elektrizitatearen prezioaren hazkunde geldiezia arintzeko neurria) eraginda. Bestalde, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergak gehikuntza izan du (iaz 14,4 milioi bildu ziren, eta aurten 32,7 milioi), eta Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko Zergak ere bai (% 5,2).

d) BEZa

BEZari dagokionez, % 14,0 gehiago bildu da: iaz, 1.878,6 milioi euro bildu ziren, eta aurtengo ekitaldian 2.142,1 milioi bildu dira. Bilakaera positibo hori diru-bilketa gordinan izandako % 18,4ko irabaziaren ondorioa da. Izan ere, 2.408,9 milioi biltzetik 2.851,8 milioi biltzera pasatu da. Itzulketetan, aldiz, % 33,8ko beherakada egon da. Kontuan hartu behar da orain dela urtebeteko diru-bilketan akta bakarren trukearen emaitza jaso zela, eta horrek 437,7 milioiko diru-sarrera ekarri ziela gainerako zerga-administrazioei. Ekitaldi honetako trukearen emaitza nabarmen txikiagoa izan denez, diru-bilketa likidoaren hazkundera, homogeneouski, % 44 ingurukoa izango litzateke. Bestalde, tributu hori dela-eta egindako barne doikuntzaren ondoriozko ordainketak % 31,2 hazi dira; guztira, 643,5 milioi euro



ordaindu dira. Arabak 205,5 milioi jaso ditu (% 51,8 gehiago) doikuntza horretan, eta Gipuzkoak, berriz, 438,0 milioi (% 23,4 gehiago).

e) Zerga bereziak

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 7,2 egin du gora zerga berezien diru-bilketak; bildutako zenbateko gordina gehitu da (% 5,6) eta itzulitako kopurua ere bai (% 2,7). Igo egin dira tarteko produktuak (% 17,2), hidrokarburoak (% 8,1), tabako-laboreak (% 18,5) eta garagardoa (% 96,3), baina jaitsi egin dira alkoholak (-% 18,5) eta elektrizitatea (-% 68,6). Emaidza horietan eragin handia dute zerga horien barne-doikuntzek. Kontzeptu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak 300,0 milioi euro ordaindu dizkie Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiei (% 0,6ko igoera); lehenengoak 68,6 milioi euro jaso ditu (% 7,0 gutxiago) eta bigarrenak 231,4 milioi (% 3,1 gehiago).

f) Gainerako zeharkako zergak

Gainerako zeharkako zergen kasuan, % 8,6ko igoera izan da, guztira. Zehazki, honako zerga hauen bilketak gora egin du: ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (% 5,3 eta % 22,9), zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia (% 0,7), berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga (% 19,3) eta aseguru-primen gaineko zerga (% 10,4); behera egin du joko-jardueren gaineko zergak (aurreko urtean 2,8 milioi izatetik gaur egun 1,5 milioi izatera igaro da). Lehen aldiz, diru-sarrerak erregistratu dira (1,4 milioi) zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergarengatik.

g) Tasak eta beste sarrera batzuk

Tasen eta beste sarrera batzuen zioz bildutakoak % 4,8ko igoera izan du; 35,4 milioi eurotik ekitaldi honetan bildutako 37,1 milioi eurora igo da. Jokoaren gaineko tasek % 58,1ko gehikuntza izan dute, batez ere makinaren eta tresna automatikoen tasak (% 60,8; 8,1 milioitik 13,1 milioira igaro da, aurreko ekitaldiko ostalaritza-sektorearen itxieraren eraginez) eta, neurri txikiagoan, bingo-jokoaren (0,7 milioi eurotik 1,6 milioi eurora) eta txartel eta beste apustu batzuen tasek (% 22,5) izan duten igoeraren eraginez. III. kapituluko gainerako kontzeptuetan, behera egin dute berandutze-interesek (-% 9,3), premiamendu-errekarguek (-% 33,3) eta zerga-zehapenek (-% 14,9).

h) Estatuarekiko doikuntzak

Estatuarekiko doikuntzak, ekitaldiko lehen hiruhilekoko BEZaren diru-bilketari eta aurreko ekitaldiko likidazioari dagozkienak, % 39,9 igo dira iazko apirilarekin alderatuta; inportazioei dagokien igoera nabarmena izan da (% 44,8); bai eta barneko eragiketena ere (% 29,1).

Zerga Bereziei dagozkien doikuntzen emaitza negatiboa % 43,5 igo da, Hidrokarburoei dagokien barne-eragiketen ziozko ordainketak % 34,4 egin duelako gora, 180,0 milioitik 241,8 milioira.



TRIBUTU ITUNDUEN BILDUTAKOA. Aurreko ekitaldiarekiko konp.
RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS. Comparación ej. anterior

2022

Aldiak: urtarrila-uztaila
Periodos: enero-julio

(euroak / euros)

Deskribapena Descripción	Bilketa Garbia Recaudación Neta		Diferentzia Diferencia	Gehik %Incr	Bilk.Aurrek Pto.Recaud.	Bet.% %Ejec
	2022	2021				
ATXIKIPENAK: NORBERE LAN-ERRENTAK / RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO	2.016.919.313	1.903.198.006	113.721.306	6,0	3.020.000.000	66,8
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	61.803.650	63.757.690	-1.954.040	-3,1	88.000.000	70,2
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	29.478.451	29.203.683	274.768	0,9	48.000.000	61,4
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	20.283.460	19.612.318	671.142	3,4	32.000.000	63,4
SARIEEN GAINEKO KARGA BEREZIA / GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS	23.018.120	6.800.944	16.217.176	238,5	25.000.000	92,1
LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTIS	55.285.996	47.625.341	7.660.655	16,1	80.000.000	69,1
PFEZ KUOTA DIFERENTZIAL / CUOTA DIFERENCIAL IRPF	-113.393.627	-143.326.794	29.933.167	20,9	-11.000.000	*
PFEZ GUZTIRA / TOTAL I.R.P.F.	2.093.395.363	1.926.871.188	166.524.175	8,6	3.282.000.000	63,8
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	61.803.619	63.757.657	-1.954.037	-3,1	88.000.000	70,2
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	29.478.221	29.203.435	274.787	0,9	48.000.000	61,4
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	20.283.457	19.612.315	671.142	3,4	32.000.000	63,4
SOZIEATEAK KUOTA DIFERENTZIALA / CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES	444.374.586	343.743.675	100.630.911	29,3	451.000.000	98,5
SOZIEATEAK GUZTIRA / TOTAL SOCIEDADES	555.939.883	456.317.081	99.622.802	21,8	619.000.000	89,8
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GIZ / IMPUESTO S/RENDA NO RESIDENTES	32.746.000	14.399.032	18.346.967	127,4	24.300.000	134,8
ONINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GIZ / IMPUESTO SOBRE SUCESIONES Y DONACIONES	46.189.090	57.796.169	-11.607.080	-20,1	86.400.000	53,5
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO	77.990.170	79.700.350	-1.710.179	-2,1	82.000.000	95,1
KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GIZ / IMPTO. S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO	15.483.733	14.717.748	765.985	5,2	17.300.000	89,5
ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GIZ / IMPTO. S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA	5.253	6.400.003	-6.394.749	-99,9	20.000.000	0,0
IRAUNGITAKO ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS						
BESTELAKO ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS	172.414.245	173.013.302	-599.057	-0,3	230.000.000	75,0
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	2.821.749.491	2.556.201.571	265.547.920	10,4	4.131.000.000	68,3
BEZ: KUDEAKETA PROPIOA / IVA GESTIÓN PROPIA	2.142.133.522	1.878.629.722	263.503.800	14,0	2.069.013.400	103,5
EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / IVA AJUSTE LEY APORTACIONES	-643.532.003	-490.351.356	-153.180.647	-31,2		*
ONDARE ESKUALDAKETEEN GIZ / IMPTO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES	52.455.374	49.794.178	2.661.197	5,3	92.000.000	57,0
EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN GIZ / IMPTO. ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS	14.432.695	11.747.335	2.685.361	22,9	19.500.000	74,0
GARRAIOBIDE JAKIN BATZUEN GIZ / IMPTO. S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE	7.662.305	7.609.614	52.691	0,7	12.000.000	63,9
ZERGA BEREZIAK: KUDEAKETA PROPIOA / IMP.TOS. ESPECIALES GESTIÓN PROPIA						
ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS	881.505	1.082.008	-200.503	-18,5	1.873.963	47,0
TARTEKO EKOIZKINAK / PRODUCTOS INTERMEDIOS	46.919	40.046	6.873	17,2	141.637	33,1
HIDROKARBUROAK / HIDROCARBUROS						
Barne eragiketak (tasa autonomikoa salbu) / Op. interiores(excl. Tipo autonómico)	481.089.650	445.147.320	35.942.330	8,1	793.642.500	60,6
Tasa autonomikoa / Tipo autonómico	-18	-4.146	4.127	99,6		*
TABAKO LANAK / LABORES DE TABACO	91.818.755	77.505.692	14.313.063	18,5	171.326.000	53,6
GARAGARDOA / CERVEZA	643.506	327.888	315.618	96,3	1.007.800	63,9
ELEKTRIZITATEA / ELECTRICIDAD	5.183.292	16.519.483	-11.336.191	-68,6	24.691.100	21,0
HIDROKARBUREN TXIKIZKAKO SALMENTEN GIZ / IMPTO. S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS	-1.365	-40.823	39.458	96,7		*
ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA / IMPTO. S/PRIMAS DE SEGUROS	37.923.890	34.343.351	3.580.539	10,4	52.000.000	72,9
JOKU JARDUERAREN GAINEKO ZERGA / IMPTO. S/ ACTIVIDADES DE JUEGO	1.505.910	2.760.546	-1.254.637	-45,4	4.500.000	33,5
BEROTEGI-EFEKTUOKO GAS FLUORADUNEN GIZ / IMPTO. S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO	807.286	676.884	130.402	19,3	1.300.000	62,1
FINANTZA-TRANSAKZIOEN GIZ / IMPTO. S/TRANSACCIONES FINANCIERAS					80.624.000	
ZENBAIT ZERBITZU DIGITALEN GIZ / IMPTO. S/DETERMINADOS SERVICIOS DIGITALES	1.381.004		1.381.004		7.900.000	17,5
IRAUNGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS						
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	2.194.432.227	2.035.787.743	158.644.484	7,8	3.331.520.400	65,9
BINGOA / BINGO	1.640.982	717.187	923.795	128,8	1.200.000	136,7
MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS	13.086.064	8.137.830	4.948.233	60,8	20.000.000	65,4
TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / BOLETOS Y OTRAS APUESTAS	2.505.999	2.044.895	461.104	22,5	3.200.000	78,3
JOKU-TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS DE JUEGO	17.233.044	10.899.912	6.333.132	58,1	24.400.000	70,6
PREMIAMENDU ERREKARGUA / RECARGOS DE PREMIO	5.434.732	8.144.542	-2.709.810	-33,3	12.000.000	45,3
BERANDUTZA KORRITUAK / INTERESES DE DEMORA	8.646.857	9.535.422	-888.565	-9,3	17.300.000	50,0
ZEHAPENAK / SANCIONES	5.828.364	6.846.835	-1.018.471	-14,9	13.000.000	44,8
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS	37.142.997	35.426.711	1.716.286	4,8	66.700.000	55,7
ESTATUAREKIN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO	5.053.324.716	4.627.416.025	425.908.691	9,2	7.529.220.400	67,1
BEZ INPORTAZIOAK / IVA IMPORTACIONES	460.907.609	318.283.952	142.623.658	44,8	685.304.000	67,3
BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / IVA OPERACIONES INTERIORES	185.387.149	143.573.918	41.813.231	29,1	372.886.000	49,7
BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES I.V.A.	646.294.758	461.857.870	184.436.888	39,9	1.058.190.000	61,1
ALKOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	66.479	25.478	41.001	160,9	95.741	69,4
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	19.450.524	19.677.943	-227.420	-1,2	23.179.400	83,9
HIDROKARBUREN GIZ.B.DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	55.197	50.228	4.969	9,9	10.078	547,7
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	-241.791.408	-179.959.542	-61.831.865	-34,4	-250.438.300	*
TASA AUTONOMIKOA / TIPO AUTONÓMICO	18	3.379	-3.361	-99,5		
TABAKO LANEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LABORES DE TABACO						
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	9.577.228	10.044.485	-467.258	-4,7	15.620.900	61,3
GAGARDOAREN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	36.002	25.933	10.069	38,8	131.014	27,5
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	9.365.439	8.491.702	873.737	10,3	10.884.240	86,0
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES	-203.240.521	-141.640.394	-61.600.127	-43,5	-200.516.927	*
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	5.496.378.963	4.947.633.501	548.745.462	11,1	8.386.893.473	65,5

* Garrantzi txikiko ratioa / Ratio no significativo